

Heri Aldizkaria

atomotz

2003ko martxoa 85. alea




Spezial Guest: gonbidatu oso bereziak

IRITZIZ-IRITZI: JOXE MANUEL BEREZIARTUA "BERE"

ELKARRIZKETA: EGUNKARIAKO LANGILEAK

ERREPORTAIK: AEK-KO BETERANOAK / GALIPOTA GARBITZEN

Garaialde Lizeoa



URRETXU-ZUMARRAGA
IKASTOLA

Labeaga 25, Urretxu

☎ 943 72 21 12

Bulego ordutegia: 9etatik 11ak arte



Aurrematrikula:

URRE
ZUMARRAGA
IKASTOLA

Matrikula:

Uztaileko lehen astean

Informazio bilera:

-Apirilaren 29an

-18:30etan

-Lizeoko bideo gelan

BATXILERGOAK, D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide:

- Zientifiko-Teknikoa
- Osasun Zientziak
- Giza Zientziak
- Gizarte Zientziak



ARGAZKI ZAHARRA



Moja ikastetxea zeneko ikasle batzuei 1984an Antio bidean ateratako argazkia.

1. lerroan: Sor Jone, Elizabet Rodríguez, Inge Hernández, Olga González, Izaskun Etxaniz, Jon Parra, Jorge ..., Iñigo Tobar, Mikel Guridi eta Ainara Oyarzabal.

2. lerroan: Cristina Pérez, Ane Berrocal, Nerea Garrido, Mikel Arostegi, Alfonso ..., Monica Puebla, Mikel ..., Andres ..., Iñaki Larrea, Agurtzane Aramendi, Ainara Rodanés eta Idoia Arakama.

3. lerroan: Kepa Turrillas, Nuria Bert, Itziar Velasco, Maria Landa, Edurne Albisu, Idoia Aranzadi, Jakinde Fernández, Rebeka Fernández, Noelia Cuñado eta Gorka Rodríguez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko martxoa

Haur etorkinak euskalduntzeko egitasmo arrakastatsua

Urretxu eta Zumarragako Udalek haur etorkinak euskalduntzeko egitasmo arrakastatsua abian jarri dute. Egitasmo hau bi herrietako ikastetxeek bultzatu dute Urretxu eta Zumarragara heltzen diren etorkin kopurua gora doala eta.

Ikastetxeek haur horiek euskalduntzeko laguntza eskatu zieten bi herrietako Udaletako Euskara Batzordeei. Izan ere, ikastetxeek eta gurasoek argi ikusi zuten haur etorkinak euskalduntzea nahi bazen aisialdian ere euskaraz egiteko aukera eskaini behar zitzaie.

Urretxu eta Zumarragako Udalek Leire Aiastui eta Nerea Alustizaren esku utzi zuten proiektua. Leirek eta Nereak begirale titulua dute eta bi herrietako Udalek urtero antolatzen dituzten udalekuetan lan egiten dute.

Leire eta Nerea hiru taldetan banatu dituzten 30ren bat haur etorkinekin lan egiten ari dira. Talde bakoitzak bi



saio ditu astean. Saio horietan haurrek euskara ikasketak sakontzen dituzte eta euskal geografia eta historia ikasten dute. Bide batez, haur hauek eskolaz kanpo euskara erabiltzea lortzen da. Horretarako, euskal jolasetan aritzen dira, euskarazko bideoak ikusten dituzte,

tailerrak egiten dituzte...

Nerea eta Leire oso gustura daude orainarte lortutako emaitzekin. "Haur batzuek sarriago etorri nahi dutela esan digute. Beraien eta gurasoen jarrera oso ona da eta oso azkar ikasten ari dira euskaraz".

Iparragirreri buruzko ikus-entzunezkoaren aurkezpena


Apirilaren 2an, arratsaldeko 7etan, Urretxuko Kultur Etxean K6 Kultur Gestioa enpresak Lenbur Fundazioaren eta Urretxuko Udalaren ekimenez prestatu duen Iparragirreri buruzko ikus-entzunezkoaren prentsaurreko aurkezpena egingo da. Egun horretatik aurrera, ikus-entzunezko horren doako emanaldiak izango dira herritarrentzat Kultur Etxean (aurrez txanda eskatuta).

Ordu erdi pasatxoko iraupena duen ikus-entzunezko horretan Jose Mari Iparragirre urretxuar seme kuttunaren bizitza azaltzen da. Tartean, Iparragirreren lanaren, bidaiaren, pentsamoldearen, berak bizi izandako garaiaren eta Urretxuren berri ematen da.

Apirilaren hasieratik aurrera ikusgai izango den bideoarekin batera, Iparragirreri buruzko ibilbide turistikoa

eta esku-orria ere prestatu dira. Apirilaren 2tik aurrera, hala nahi dutenek, esku-orria hartu eta ibilbide turistikoa egiteko aukera izango dute. Ibilbide horrek Urretxuko tokirik esanguratsuenak ikusteko aukera eskaintzen du. Hauen artean, Iparragirreren jaiotetxea, estatua eta mausoleoa, Gernikako Arbola plaza eta Udal Pinakoteka ikusteko aukera izango da.

Ferretería **BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31
ZUMARRAGA

Gazte Lokalak ekitaldiak antolatzeari ekin behar dio



Martxoan Zintzo-Mintzoko Euskaltzale Elkartearen ekimenez eta Urretxu-Zumarragako Udalen laguntzaz ireki zen Gazte Lokaleko bazkideek eta begiraleek lehen asanblada egin dute. Bertan orainarteko balorazioa egin zuten eta etorkizunean garrantzitsuak izango diren erabakiak hartu zituzten. Hauen guztien berri izateko Nerea Alustiza begiraleen arduradunarekin hitz egiten izan gara.

Nerea oso gustura dago Gazte Lokalak jaso duen harrerarekin. "Lehen hilabeteetan nahi zuten guztiak sar zitezkeen eta egunero ehundik gora haur etortzen ziren. Orain 40-50 haur inguru etortzen dira: ostiraletan gutxi samar, larunbatetan gehiago eta igandeetan gehien".

Lehen egunetan, bazkide egiteko, fitxa bat betearazi zitzairen. Horretarako 5 euro ordaindu zituzten eta hilero beste hiru euro ordaintzen dituzte. "137 hurrek bete zuten fitxa, baina hauetatik 25 jada ez dira hemendik azaltzen. Etortzen direnak 6. mailakoak dira. Hasieran beste adinetakoak ere etortzen ziren eta berriro erakarri nahi ditugu. Hori dela eta, hemendik aurrera antolatuko ditugun ekitaldiak, behar bada, guztientzat irekiak izango dira".

Orain arte Gazte Lokaleko begirale eta gaztetxoek ekitaldi bakarra

antolatu dute: ihauterietako mozorro lehiaketa. Lehiaketan gaztetxo askok parte hartu zuten. Epaileen saria Jon Ander Arzellusek irabazi zuen eta bazkideen saria, berriz, argazkian moztortuta ikus dezakezuen Saioa Pueblak, Maitane Ruizek, Idoia Mendiak, Maite Plazaolak, Begoña Santillanak, Oihane Arruabarrenak eta Jone Inzak osatutako taldeak.

Bileran begiraleek eta gaztetxoek beste hainbat ekitaldi antolatzea adostu zuten. Hilero tailer bat antolatuko dute (lehen martxoko azken asteburuan izan zen), ikastaroak ere izango dituzte (lehen informatika ikastaroa izango da) eta apirila edo maiatzean Donostiako izotz jauregira irteera egingo dute, besteak beste.

Bileran beste hainbat gai ere aztertu ziren. Gazte Lokalaren anagrama lehiaketa antolatu dute, gaztetxoek futbolina, billarra, edari-makina eta ping-pong mahaia eskatu zituzten, besteak beste, eta ordutegia 9ak arte luzatzea eskatu zuten. Horrez gain, oraindik bazkide ez diren asko Gazte Lokalera sartzen dira eta bazkideak hauei sartzen uztearen aurka agertu ziren. Bukatzeko, gaztetxoak oso gustura azaldu ziren Gazte Lokala ireki izanarekin, honela ez baitute derrigor kalean egon beharrik.

Heri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Farmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Emakumearen Eguna ospatzeko ekitaldia

Martxoaren 8an, Emakumearen Eguna zela eta, Urretxuko Udalak antolatutako ekitaldia izan zen udaletxean. Bertan, Urretxu eta Zumarragako hainbat elkartetako ordezkariak eta Mairi Emakumeen Elkarteko eta Urretxuko Emakumearen Kontseiluko kideak izan ziren.

Ekitaldiari hasiera emateko Oihane Toledo soprano urretxuarrak bi abesti kantatu zituen Juan Luis Aranburu eta Mikel Peñagarikano musikariek lagunduta. Ondoren, Pello Gonzalez alkateak, Itziar Oñatibia Emakumearen Kontseiluko ordezkariak eta Mairiko Maria Jesus Larrañagak eta Polo Rodriguezek hitza hartu zuten.

Alkateak Mairik eta Emakumearen Kontseiluak egiten duten lana goraiatu eta eskertu zuen. Itziar Oñatibiak emakumeek alor ezberdinetan pairatzen duten diskriminazioa aipatu zuen eta hau gainditzea guztion ardura



delako gogorazi zuen. Maria Jesus Larrañagak eta Polo Rodriguezek, berriz, Mairi hitzaren esanahia azaldu zuten.

Ekitaldiari amaiera emateko,

Oihane Toledok beste bi abesti kantatu zituen eta udaletxean bildutako guztiek hamaiketakoia izan zuten beheko solairuan.

Itsaski zozketa

Argazkian gustura asko ageri diren Juanjo Arrietak eta Marian Etxeberriak irabazi zuen Zintzo-Mintzok hilero antolatzen duen euskararen normalizazioaren aldeko otsailko itsaski zozketa. Hurrengo zozketa apirilaren 4an izango da, beti bezala, arratsaldeko 8:30etan Urretxuko Ederrena tabernan. Zorte on guztiei!



FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.

Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

2003ko martxoa

Gorka Hermosa toparen topan

Gorka Hermosa herritarrak gidatzen duen IlunaBar pop-rock taldearen "Zure begirada batek" abestia Euskadi Gaztea irratiiko Top Gaztea zerrendan lehen postuan izan zen otsaileko azken asteburuan. Abesti honek bi hilabete daramatza jada zerrendan.

IlunaBar taldea Gorka Hermosaren egitasmo oso pertsonala da. Betidanik musika klasikoan aritu da batik bat eta inguruko jendearen gustukoa izango zen musika jorratzeko gogoia zuen. "Pena ematen zidan jende ezagunari transmititzen ez jakiteak". Hori lortzeko, musika munduan izen handia duen jendearekin batera IlunaBar taldea sortu zuen.

IlunaBarrek abenduan kale-ratu zuen bere lehen diskoa eta Gorka oso gustura dago diskoak izan duen harrerarekin. "Durangoko azokara begira kaleratu genuen, baina hasieran diskoak ez zuen disketeak espero zuen erantzuna izan. Izan ere, gure abeslariak (Hemendik At taldeko kide ohiak diren Eburne eta Stella) euren disko propioa atera zuten eta Hemendik At taldearen jarraipena zenez, komunikabideek disko horri IlunaBarrenari baino garrantzi handiagoa eman zioten".

Azkenaldian, ordea, salmentek gora egin dute. "Pixkanaka diskoa irratietan entzun da eta salmentek gora egin dute. Dagoeneko gastuak ordaintzeko adina atera da eta hori ona da etorkizunari begira. Dena den, niri salmenten kontua ez zait gehiegi axola. Diskoetatik diru gutxi irabazten dugu eta guri kome-ni zaiguna diskoa entzuna izatea da".

Euskadi Gaztea irratiiko Top



Gaztea zerrendan izatea bultzada garrantzitsua da. "Diskoa grabatu genuenean ilusioa egiten zidan zerrendan sartu zitekeela pentsatzeak, baina ez nuen uste abestiren bat lehen postura helduko zenik".

Kontzertuei dagokienez, orain arte kontzertu gutxi eskaini dituzte. "Beste kontu batzuetan sartuta egon naiz, baina orain managerra kontzertuak bilatzen hasi da. Oraingoz Parisen, Pabean eta Kursaal en jo dugu (ETBren saio baterako) esaterako, baina kontzerturik pozgarriena Kilometroak egunean herrian eskaini genuena izan zen".



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Joxe Manuel Bereziartua, "Bere"

Gure garaien metafora bat

Espainiako telebistako bigarren katean arratsaldeetan, izadiari buruzko dokumentalak ematen dituzte, arratsaldero 4ak aldera. Batzuetan hegaztiak nola egin dezaketen hegan aztertzen dute. Gizakiak asko ikasi omen du beraiei begira. Aerodinamika ere, %80an hegaztiei behatuz garatu da. Besteetan txinpantzeak aztertzen dituzte, edo izurdeak. Biak hala biak, ba omen dute nolabaiteko bere buruaren kontzientzia, eta baita komunikatzeko gaitasuna ere. Zientzia gaur egun oso aurreratua baldin badago ere, ezin izan ditu ondo esplikatuz gaitasun hauek. Oso interesgarriak suertatzen dira animaliei buruzko erreportaje horiek.

ETBko 2. kanalean duela gutxi hasi dira ematen "El cuerpo humano" izeneko ikus-entzunezko dokumentala, BBCk ekoiztutako dokumentala. Bertan gizakia bere osotasunean aztertzen da: nola jaiotzen den, nola hazten den, bere erreakzioak egoera atseginen aurrean eta bere erreakzioak beldurraren, amorraren edo tristeziaren aurrean. Oso ikusgarriak gertatzen dira gorputzaren barruan erregistraturiko irudiak, kamara mikroskopikoekin eta abar. Teknologiarik aurreratuen eta ikerkuntzarik sakonena geure burua ezagutzeko aproposa den telesail eder horretan.

Telecincon, duela gutxi arte (aste batzuk dira amaitu zela) "Hospital central" ematen zuten. Telesail horren gaia zera zen: Eritetxe bateko larrialdietako zerbitzuak nola funtzionatzen duen. Emozioa eta suspentsea mantenduz, astero-astero azaltzen zitzaizkigun argumentuan: desegindako familiak, ezjakintasunaren biktimak, haurdun suertaturiko neska gazteak edo gizarte honetatik at geldituriko aitona-amonak.

ETBko lehenengo kanalak euskaraz eskaintzen du bere emisio osoa. Euskara 500.000 inguru hiztun dituen hizkuntza da. Ez da, Europako beste asko bezala, latinetik datorren mintzaira. Batzuen arabera, erromatarrak bertaratu aurretik Iberiar penintsulan hitz egiten zen hizkuntza da. Beste ikerle batzuk Kanariar uharteetan hitz egiten zen Guantxe-arekin bilatu dizkiote antzekotasunak. Kaukaso inguruko hizkuntza batzuekin ere bilatu dizkiote antzekotasun horiek. Euskarak berarekin mantentzen du bertsolaritza. Olerkiak modu neurtuan eta errima mantenduz osatzeko artea da bertsolaritza.

Estatuko telebistara bueltatuz, larunbat gaue-tan bigarren kanalean "La noche temática" ematen dute. "La noche temática" saioan gai bat hartzen dute eta gai horri buruz pelikula bat eta beste bi dokumental ematen dituzte. Adibidez, Ameriketako Estatu Batuek Afganistan bonbardatu zutenean Massud jeneralari buruzko erreportaje bat eman zuten. Massud sobietarrak kanporatzeko afganistandarrek egindako gerran pertsona karismatiko eta garrantzitsua izan zen. Oso elkarrizketa gutxi eman zituen bere bizitzan eta TVEko bigarren kanalean emandako hartan asko ikas zitekeen Afganistanen azken hamarkadetan gertatutakoari buruz.

Egia esan, telebistari begira asko ikas daiteke: izadiari buruz, zientziari buruz, gizarte honi buruz eta, azken finean, geure buruari buruz.

Telecincon badago gaue-tan ematen duten beste saio bat. "Crónicas marcianas" du izena. Bertan Coto Matamoros edo Yola Berrocal bezalako pertsonaiak agertzen dira. Programa horren edukia horrelako zerbait izan daiteke gutxi gorabehera: Coto Matamorosek honakoa esaten dio beste kazetari bati: "Has donado tu cuerpo a la ciencia para que cuando te mueras hagan supositorios contigo, y así poder seguir dando por culo a la gente". Orduan kazetariak zera erantzuten dio: "Tú lo que eres es un padre degenarado que ni si quiera es capaz de cuidar de sus hijos, por no ser no eres capaz ni de pasarles la pensión alimenticia".

Geroxeago Yola Berrocal agertzen da urez betetako plastikozko bainera batean. Berarekin beste bi pertsonaia ikus ditzakegu: Boris Izagirre eta Dinio izeneko beste bat. Hirurak hor dabilta baineran umeak bezala plisti-plasta egiten. Platoan algarak eta oihuak entzun daitezke, halako batean Diniori galtzontziloak eransten dizkiote eta ipurdia agerian duela gelditzen da.

Gaur egun, "Crónicas marcianas" Espainian (eta Euskal Herrian) gehien ikusten den telebista saioa omen da. Telebistarekin gertatzen dena ez da ez, bizi-tzarekin gertatzen denaren metafora txarra.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer iritzi duzu Iraken aurkako erasoaz?



Pedro Iturbe

Sarraski handia egingo dute eta, ondoren, gauzek berdin jarraituko dute. Ez dut uste mundu mailako gerrarik ekarriko duenik.



Rosa Martinez

Gerraren aurka nago erabat. Gerraren eraginak ikusteko daude, baina nire ustez ondorioek guztiongan eragina izango dute. Bakerik okerrena ere gerra baino hobea da.



Mari Jose Zabala

Gerra oren aurka nago. Bakea barnetik hasi behar da, norberak lortu behar du bere inguruan, eta guk hemen badugu zer egina. Gerraren ondorio batzuk ikusten ari gara jada, baina kontrako erreakzioak ere bai eta hori positiboa da.



Mikel Igarza

Gerraren aurka nago. Ez dago gerran zertan sartu beharrik. Aurretik ere nahiko arazo badaude.



Mikel Leturia

Sarraski hutsa da. Yankee-ek Irak armak emanez lagundu zuten eta esku artetik ihes egin dienean inbaditu egin dute. Kaltetua jende xehea izango da.



Enrique Díaz

Gerraren aurka nago. Ez zait ondo iruditzen jendea erruz hiltzea. Mundu mailako eragin ekonomikoa izango duela uste dut.

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Electrodomésticos, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Guerratu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------

URKI
liburudenda

Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Ez zaudete bakarrik

martin ugalde
kultur parkea

Egunkaria



Euskaldunon Egunkariaren aurkako erasoak bazterrak majo nahastu ditu azken hilabete eta erdi honetan. Egunkariaren itxierak, atxilotuek salatutako torturek, Pello Zubiriarekin egindako bidegabekeriak... aspaldi honetan ikusi gabeko euskaltzaleon erantzun bateratu eta indartsua ekarri du. Kontu honetaz hitz egiteko, nor hobe Egunkariako langileak baino. Hori dela eta, Egunkarian lan egiten zuten eta jada Eguneron ari diren Gorka Quevedo eta Gorka Erostarbe herritarrekin izan gara.

Nola izan zenuten gertatutakoaren berri?

Quevedo: Ohean nengoen eta amak esnatu ninduen lankide baten deia nuela esanez. "Zein izango ote da goizeko zortzietan deitzen didan ... hau?" pentsatu nuen. Jon Maia zen: gertatzen ari zena kontatu zidan eta Andoainera joan ginen. Zer nolako mobilizazioa prestatu zuten harritu ninduen: berrehundik gora goardia zibil, furgoneta pilo bat, kamioiak... Sekulako inpotentzia sentitu genuen eta ezjakintasuna erabatekoa zen.

Erostarbe: Bi sustu jaso nituen, lehenengoa zazpiak eta erdietan lankide batek deitu zidanean eta bigarrena operazioaren tamaina ikusi nuenean. Kultur parkea erabat militarizatu zegoen. Azken urteotan broma bezala komentatzen genuena errealtate bihurtu zen: gure artean askotan "halako batean Garzon etorriko dek eta pikutara bidaliko zigutek" esaten genuen. Azkenean Garzon ez, baina bere anai bikiaren aginduz azaldu ziren berdez jantzitako horiek.

Gertatzen ari zena sinisten al zenuten?

Quevedo: Harridura sentitu genuen, baina AEKrekin sartu dira, Zabaltzenekin... badakigu ez dela zerutik eroritako harria.

Erostarbe: Garbi ikusi da dagoeneko ez ETarekin bakarrik baizik eta beraiek onartzen ez duten Euskal Herri batekin zerikusia duen edozerren aurka egin dezaketela eta egingo dutela. Hasieran ezustekoa izan arren, jada erabat asimilatu dugu.

Nolakoak izan ziren lehen egun haiek?

Quevedo: Erabat kaotikoa zen, ez geneukan ezer. Gure mobilaren bidez funtzionatzen genuen. Soldata erdia mobiletan utzi genuen. Lehen helburua Egunkariaren ordezkoa ateratzea izan zen. Lan talde txiki bat hartu zen zer edo zer ateratzeko eta horretara beteranoenak dedikatu ziren. Gainontzekook gauzak antolatzen hasi ginen. Kaosa zen: ez genuen atxilotuen inguruko informaziorik, ez genekien zer

egin behar zen...

Erostarbe: Orainarte ez dugu hausnarketarako tarte handirik izan. Unean-unekeo beharrei erantzuten saiatu gara. Pixkanaka etorkizunean zer egin pentsatzen hasi beharko da. Niretzat pozgarriena kalean gelditu garen 150 lagunok egunero biltzen ginela eta sortu den mugimendua ikustea izan da. Uholde hori aprobetxatu beharra dugu gure onerako. Erantzun moduan, aterako den produktua aurrekoa baino hobe izatea lortu behar da. Hori baino erantzun hoberik, beraiei aurpegian jotzeko modu hoberik, ez dago. Neurri batean orain konturatu gara gazteenok zenbat lan egin behar den honelako proiektu bat aurrera ateratzeko. Askotan parre egiten dugu zaharagoen militantzia dela eta, baina seguraski orain sortzen den honetan askoz ere militantegoak izango gara eta beste era batera ikusiko dugu.

Zenbat denbora daramazue

Egunkarian?

Quevedo: Aurtengo udan hirugarren urtea egin behar dut. Kulturalan izan ezik, gainontzeko sail guztietan izan naiz. Sartzen zarenean sail batetik bestera ibiltzen zara. Ondoren, "Xingola" gehigarrian eta Gaiak sailean izan naiz.

Erostarbe: Nik udan laugarren urtea egingo dut. Bekadun bezala kulturalan izan nintzen, sailetik sailera ere ibili nintzen, igandeko gehigarrian urte pare batean izan nintzen eta orain "Barkatu, ama" gehigarrian nabilen.

Zer esan dezakezue Egunkariako lanaz?

Quevedo: Iritzi sailean hasi nintzen eta suerte handia izan nuen. Asko gustatu zitzaidan bertako giroa. Hasieran beldur pixka bat duzu, baina berehala oso harreman ona izan nuen jendearekin.

Gorka: Sartu nintzenez zorteko sentitu nintzen, sartu aurretik ere nire egunkaria Egunkaria baitzen. Kazetaritzaren inguruan zalantza dexente nituen, baina hor

"Herri batzordeetan egin beharko da indarrik handiena, goitik zer iritsiko den itxaron gabe"

sartzeak berriro motibarazi ninduen. Zortea eduki nuen, era berean, kultura sailean sartu nintzelako eta horixe zelako nire gustatzen zitzaidana. Gainera oso harrera ona egin zidaten. Egunkarian euskarazko prentsan erreferentia den jendea dago eta asko ikasten da.

Zer zen Egunkaria zuentzat?

Erostarbe: Egunkaria produktu estimatua eta baloratua izan da kalitate aldeetik, baina euskarak dituen eskasiak direla medio, jende askok euskaraz jakin arren, irakurtzeko gaitasuna duen jende asko ez dago. Justu hortxe betetzen zuen, eta ia betetzen duen, funtzio garrantzitsuetako bat. Pixkanaka lan hori egiten ari zen eta salmentak goraka zihoazen. Ez zen produktu

maioritarioa, baina bai estimatua eta preziatua. Ahots askoren altaboza izan da eta hori da hizkuntza normalizatu baten ezaugarria da, nahiz eta itxi dutenek ideologia batekin lotu.

Quevedo: Egunkariaren nazio ikuspuntua azpimarratuko nuke, lurraldetasuna.

Espero al zenuten jendeak orainarte emandako erantzuna?

Quevedo: Bai, baina ez. Sektore euskaltzaleak erreta daudela ikusi da, baita euskararen eta Euskal Herriaren aurkako eraso bat izan dela.

Erostarbe: Sektore askorengana iritsi den asuntua izan da. Haserrea jende askorengana heldu da. Manifestazioak asko harritu gintuen. Zenbait jenderengan euforia puntu bat sumatzen da. Ez dakit jende askori ez ote zaion iruditzen mesede egin digutela, ikusi den erantzunagatik eta indarragatik. Seguraski, ahalegin handia eginez, proiektu bat aurrera ateratzea lortuko da eta ahalik eta onena izan dadin saiatu beharko dugu. Baina kaltea handia izan da eta egitura asko bertan behera gelditu dira. Hutsetik ez gara hasiko, baina egin beharreko lana handia da.

Quevedo: Horretaz gain, lankide pilo bat gara. Atzetik familia asko daude eta kasu batzuetan senarra eta emaztea Egunkarian lanean zeuden. Bi soldata izatek soldatarik ez izatera pasa dira.

Nola ikusten duzue zuen etorkizuna?

Erostarbe: Nire burua inoiz baino motibatuagoa ikusten dut kazetaritzan eta konkretuki Egunkarian edo ondorengoa izango den horretan saiatzeko. Normalean gauzak oker doazenean indar gehiago ateratzen dugu eta nire burua oraintxe nonbait ikusten badut proiektu berri horretan da. Gauza asko dira kontuan hartu beharrekoak. Aurrekari bat badugu gertu samarrekoa, orain bost urte Egin itxi zutenean. Gauzak txukun egiten saiatu beharko dira inongo gaizki ulerturik egon ez dadin. Motibaziorik behintzat ez zaigu falta.

Quevedo: Oraindik ez dakigu ezer. Ez dakigu, proiektu berria nolako izango den, zenbat orrialde izango dituen, zer egitura izango duen, zer zuzendaritza izango duen...

Euskal Herritik kanpo komunikabideen

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

 kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbr.a

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

elkartasunik jaso al duzue?

Quevedo: El Mundo egunkariko hemengo kazetariak asko "enrollatu" dira eta laguntzeko prest daude, baina zuzendaritzarekin topo egiten dute. Kazetarien eta euren komunikabideen ildo editoriala bereiztuko nituzke. Dena den, ez dut nahi El Mundokoen babes, nire aurkako gezurak etengabe esaten ari direnean.

Erostarbe: Madrilen egon ginean Kataluniako hedabide gehiago zuden Madrilgoak baino. Egunkariako Imanol Murua Uriak Madrilgo kazetari-kin hitz egin zuen beraien iritzia jakiteko: hango kazetariak saltzen dietena erabat sinetsia dutela ikusi zuen. Egunkaria ixtea oso gogorra dela, baina atxilotu badituzte zerbaitegatik izango dela esan zioten. Informazio eta adierazpen eskubideak beti demokrazia baten puntu garrantzitsu bezala hartu dira eta bost urtetan bi egunkari ixtea ez dakit nonbait gertatuko zen.

Jendeari zer eskatuko zenioke?

Quevedo: Euskal Herriaren aurkako eraso dela eta, beraz, Euskal Herri bezala erantzun behar zaiola. Herri bezala

erantzun behar dugu. Eraso jo duenari horrek egingo dio min gehien.

Erostarbe: Gizarteari zerbait eskatzekotan batasuna eskatu behar zaio. Baina gizarteari baino gehiago agintari politikoei eta instituzioei eskatzeko garaia dela uste dut. Egun hauetan gure aldeko aipamen ugari entzun ditugu, baina bada-kigu egiazko orduan beraien interesen arabera funtzionatzen dutela herriaren interesen arabera baino gehiago. Eraso hau Euskal Herriaren aurkako eraso da eta hau Madrilen, Audientzia Nazionalaren inguru hartan, argi ikusi genuen: nola begiratzen gintuzten, zer gorroto duten... Gorroto honetan erori gabe geurea egiten jarraitu behar dugu, baturik.

Quevedo: Erantzuna erasoaren tamainakoa izan behar da. Eraso gogorra izan da eta ez epelkeriak ez du ezertarako balio. Euskal Herriaren aurkako hamaikagarren hordagoa izan da eta honi eutsi egin behar diogu denok elkarrekin.

Orain arteko erantzuna erasoaren tamainakoa al da?

Quevedo: Hitz egitea oso erraza da, kontua hitzetatik ekintzetatik pasatzea da. Hitz politikak, doluminak... emateko denok ditugu ama edo amona.

Erostarbe: Huts egitekotan berri-ero ere politikariek herriak baino gehiago huts egingo duten usaina hartzen diot. Egunkaria sortu zenean bezala, herri batzordeetako lana izango da oinarria eta bertan egin beharko da indarrrik handiena goitik zer iritsiko den itxaron gabe.

Egunkariaren aldeko herri plataforma sortu berria da...

Quevedo: Plataforma eta egunkaria sortzea kolpe horri eman diezaioketuen erantzunik onena da.

Erostarbe: Duela 13 urte ere herri batzordeek sekulako garrantzia izan zuten. Nahiz eta kolpe gogorra eman diguten, duela 13 urte gai izan baginen orain ere gai izango gara. Esperientzia badago, egitura minimo batzuk badaude... gogoia duenak badu non eta zertan aritu. Nahiz eta lehen aste hauetan herrian gutxi izan garen, herritarren elkartasuna nabaritu dugu.



Egunkariaren aldeko herri batzordea abian da

Urretxu-Zumarragan ere, Euskal Herriko herri gehienetan bezala, Egunkariaren aldeko herri batzordea sortu da. Batzorde honetan, alderdi politiko, sindikatu eta elkarte ezberdinetako ordezkariak zein herritar arruntak parte hartzen ari dira. Batzordea Egunkariaren alde lan egin nahi duten guztiei irekia dago. Herri batzordeak orain arte izan diren mobilizazioak antolatu ditu eta aurrerantzean egitasmoaren aldeko atxikimenduak lortzen, harpidetzak bultzatzen, bonoak saltzen, euskal prentsaren aldeko mezua zabaltzen... saiatuko da. Komunikabideen bidez izango duzue hurrengo bileraren egunaren eta orduaren berri. Ager zaitezte, euskal prentsak zuen laguntza behar du!

Spezial Guest: gonbidatu oso bereziak

Badira jada urte batzuk musikazaletasuna zuten lagun batzuek elkartu eta Spezial Guest taldea sortu zutela. Egun, Txumbo (kitarra), Jon Garcia (kitarra), Gotzon (baxua), Mr. Sex (bateria) eta Txarli %100 (ahotsa) dira taldeko kideak. Iaz Gara egunkariak atera zuen Euskal Herriko rock talde berrien bildumako maketen arteko bat eurena izan zen. Egun, zazpi abestiz osatua egongo den bigarren maketa prestatzen eta aukera eskaintzen dieten toki guztietan kontzertuak eskaintzen ari dira. Teknologia berrien bidez euren burua eta lana ezagutzera ematen trebeak dira: kontzertu bat eman behar duten bakoitzean herria kartel probokatzaileez josten dute eta www.spezialguest.com web gune bikaina dute. Txumbok eta Txarlik taldearen berri zabalagoa eskaini digite.



Nondik zatozte Spezial Guest-eko partaideak?

Txarli: The fabulous house of the orgasmic pigs, And after, Ihes indar eta Gorroto taldeetatik gatoz. Mr Sex aurreko baterijolearen ordeztarri zen, Gotzon aurreko baxuaren partez... Taldea 1997an sortu genuen, baina egungo partaideok bi urte daramatzagu elkarrekin eta maketa oraingo bostok grabatu genuen.

Zer musika mota egiteko asmoarekin elkartu zineten?

Txumbo: Metal hutsa egiten hasi

ginen, baina pixkanaka aldatzen joan ginen. Batzuek "grunge" taldea garela esaten digute eta Pearl Jam-ekin antzekotasuna digutela esaten digute, nonbaiten kutsuren bat izango dugu... Orain Emo-ra jotzen dugula esango nuke.

Txarli: Melodikoagoa da. Hasieran garrasi asko egiten genuen...

Txumbo: Roka-roleroak garela ere esango nuke.

Txarli: Bai, metalikoak diren distorsioak kenduz gero...

Ildo bat lortu duzuela uste al duzue?

Txumbo: Orain abesti guztiek

ildo berbera jarraitzen dutela esango nuke.

Txarli: Lehen begira, *begira zer atera dudan!* zen gure ildo. Orain abesti guztiak antzekoak dira.

Zenbat abesti dituzue?

Txarli: Lau kantaz osatutako maketa bat dugu eta orain bigarren maketa kaleratu nahian gabilta.

Txumbo: Maketa berriak abesti gehiago izango ditu eta ildo berrikoak izango dira.

Txarli: Jotzen hasiz gero ordu

eta erdi inguru jo dezakegu. Jada 16-18 abesti ditugu.

Nondik-nora zabiltzate kontzertuak eskaintzen?

Txumbo: Goierrri garaia guztia zeharkatu dugu! Hemendik Donostia alde-
ra eta Eibar ingurura toki gehienetan jo
dugu.

Txarli: Lemoan ere jo dugu eta
Gasteizen jo behar dugu. Bestalde,
Bartzelonan, Galizian, Leonen... ere izan
gara. Orain kontaktu ugari dituen
Elgoibarko lagun bat egin dugu, Javier
Quintano, eta kontzertu asko lortzen dizki-
gu, managerra dela esan daiteke. Baina
askotan Galiziara edo bost kontzertu jotze-
ko asmotan joan eta bi jo izan dira.

Txumbo: Hauetako kontzertu ba-
tzuk ez dira oso ondo lotuak egoten...
Kanpora irten garenean dirua atera beha-
rrean galdu egin izan dugu. Baina oporrak
izango balira bezala hartzen dugu eta kitto.
Dena den, egia esan, zure kontura ateratzea
ez da oso probetxugarria. Disketxeren
baten arreta lortu beharra dago, bestela
ondo pasatzen da baina ezin da aurrera
egin.

Bereziki gustura utzi zaituzten kontzer- turik?

Txumbo: Kilometroetan oso gus-
tura izan ginen: jende andana zegoen, egu-
raldi bikaina egin zuen, soinua oso ona
izan zen, tokia ere oso ona... Woodstock
zirudien! Sekula ez dugu halako musika

spezialguest.com orrian abestiak entzun eta argazkiak ikus daitezke

ekipoarekin jo. Herrietako festetan ere jo
dugu, baina batzuetan teknikariak berbena
taldeekin lan egiten ohituak daude...
Soinua oso garrantzitsua da. Nahiz eta oso
abesti onak izan, ekipo txarra bada ezin da
ezer erakutsi. Bola bat entzuten da eta kon-
funditu arren ez da inor konturatuko.

Txarli: Kilometroak egunean zen-
baitek gure abestiak ere ezagutzen zituzten.
Izan ere, interneten gure abestiak entzun

daitezke: www.spezialguest.com orrian.
Bertan gure argazkiak, biografia... ere
aurki daitezke.

Kontzertuak iragartzeko kartelak egite- ko ere internet erabiliko duzue...


Txarli: Gutxienez jendeak karte-
lez hitz egitea lortu dugu...

Txumbo: Herri guztiak ikusi du
noizbait gure kartelen bat. Horretaz Jon
arduraten da. Gure helburua jendearen
arreta lortzea da. Astebururo kontzertu bat
edo bi eskaintzen ibili izan gara eta sekula-
ko lana da astero kartel bat egitea. Dena
den, egin beharreko lana da.

Gustura gelditu al zineten lehen maketa- rekin?

Txumbo: Borja Aranbururekin
grabatu genuen lokalean bertan eta nahiko
gustura gelditu ginen. Denborarekin zen-
bait gauza aldatuko genituzkeen, baina
gustura gaude.

Txarli: Hasieran gu arduratu
ginen banaketaz, 500 bat banatu genituen
tabernetan, kontzertuetan... Gero Garak
3.500 bat banatu zituen egunkariarekin
batera.



Nolatan eskaini zizuen Garak zuen maketa banatzea?

Txarli: Garako Izkanderrek deitu zidan. Gure maketa entzun omen zuen eta bilduma horretan gurea ateratzea eskaini zidan. Baiezkoa eman nion, noski! 3.500 kopia egun bakarrean banatzea gauza handia da. Oso momentu ona izan zen eta bul-tzadatxoa eman zigun. Hor zehar joaten garenean jendeak Gararen ekimen hari esker ezagutzen gaituela ikusten dugu.

Txumbo: Dena den, ez dugu uste ekimen hari esker kontzertu gehiago ematea lortu dugunik. Izan ere, hizkuntza oztopoa bada. Guk ingelesez kantatzen dugu eta hemen euskaraz kantatuz errazagoa da ezagunak egitea. Garak banatu zituen diska haien artean gurea eta beste bat bakarrik ziren ingelesez.

Aurki bigarren maketa grabatzen hasi behar omen duzue...

Txarli: Bigarren maketa hori luze-xeagoa izango da, zazpi abesti izango ditu, eta disketxeetara bidaliko dugu.

Txumbo: Kalitate hobeko grabaketa egiten saiatuko gara, edonon aurkezteko modukoa. Eibarko estudio batean gra-

batuko dugu, Kokein taldeko bateriarekin, baina Borja ere estudioan egotea nahi dugu.

Txarli: Lehen maketa ere disketxeetara bidali dugu: Madrilera, Galiziarra, Suezia, Estatu Batuetara... berdin zaigu.

Txumbo: Azkenaldian ez ditugu kontzertuak ematen bigarren maketako abestiak prestatzeko, baina grabaketa atzeratzen ari da eta berriro ere kontzertuak ematen hasi gara. Orainarte edozein tokitan jo dugu, baina toki txukunetan jotzen hasi behar dugu. Izan ere, Gaztetxe batzuetako kontzertuek entsaiuak ziruditen kontzertuak baino. Eskerrak herriko jendea gure kontzertuetara joaten den...

Txarli: Galiziarra joan ginenean ere herriko jendea azaldu zen.

Jarraitzaileak badituzue, beraz...

Txarli: Jendea gustura gelditzen da. Batzuk kontzertuen ondoren etortzen dira gustatu zaiela esatera eta interneten ere mezuak jasotzen ditugu. Azkenaldian gure musika melodikoagoa da eta, nire ustez, horregatik gustatzen zaio jendeari.

Kantuen hitzei buruz, zer diozue?

Txarli: Nik neuk egiten ditut. Guztiak harreman pertsonalei eta amodioari buruzkoak dira, baina ez ditugu betiko moduan kontaktzen.

Rock musikaren mundu honetan aurre-egitea zaila al da?

Txumbo: Benetan zaila da. Hemen, Gaztetxeei esker, kontzertuak ematea behintzat erraza da. Baina Bartzelonan, adibidez, ez dago musika jotzeko tokirik. Ezagunek areto handietan jo dezakete, baina bestela... Guk okupen etxe batean jo genuen.

Txarli: Hemen kanpoko edozein taldek non jo bilatzeko esaten badizu, segituan aurkitzen diozu non jo. Batzuk bi kontzertu eskaintzeko asmoz etortzen dira eta zortzi eskaintzen dituzte.

Herrian rock musika taldeak sortzeko giro aproposik ba al dago?

Txumbo: Talde batzuk bagaude, baina udalak ez du ezer egiten gure alde. Lokala guk alokatu behar dugu, baina gero jaiak heltzen dira eta guri ezer esan gabe egitarauan sartzen gaituzte, jotzera behartuak egongo bagina bezala.



AEK-ko beteranoak...



Urte mordoxka pasa dira jada Urretxu-Zumarragako Bisasti Euskaltegia ireki zela. Ordutik, makina bat herritar pasa dira bertatik euskara ikasteko, euskara ikasi nahi duten hauei irakasteko eta aurten hamairugarrenez ospatuko den Korrikaren herriko batzordean parte hartzeko. Urte hauetan guztietan AEK, Korrika, herria..., eta gizartea orohar, izugarri aldatu dira. Euskal Herria euskararen alde zeharkatzen duen Korrikaren egungo eta garai bateko antolaketaz hitz egiteko, aurten Legazpi, Urretxu eta Zumarragan Korrikaren antolaketaren ardura duen Gorka Ojangurenekin, duela bi urte antolaketaren ardura izan zuen Josu Aztiriarekin eta Antxiñe Mendizabal eta Xerapio Jauregi "AEK-ko beteranoekin" izan gara Bisasti Euskaltegian.

Gorka Ojangurenek Korrikaren azken edizioetan herriko batzordean parte hartu du. "Gehienbat duela bi urte ibili nintzen, Korrika kulturalako ekitaldiak antolatzen. Orduan jada herriko batzordearen koordinaketa lana eskaini zidaten, baina ez nengoen ardura hori hartzeko moduan. Badirudi herrian *lista negra* antzeko bat dagoela eta aurten berriro eskaini didate, lan honetan ikutu behar dudan jende asko ezagutzen dudalako. Josu ere ezagutzen dut eta duela bi urteko paperak izateak laguntza handia eskaini dit".

Gorkaren ustez herrian Korrikaren antolaketaz arduraztea erronka polita da. "Azken

finean, hau ere norbaitek egin beharra du. Gauza asko ikasten dira, baina "marroi" bat ere bada. Jendearekin harremana izaten, aurpegia gogortzen... ikasten da. Bestalde, erantzunkizun guztia zure gain hartzen duzu: askotan denetik egiten ibili behar duzu, jende asko ez da hurbiltzen batzordera, leku batzuetan jendeak ez dizu aurpegi onik jartzen...".

Dena den, oraingoz guztia nahi bezala atera omen da. "Orain arte ekintza kulturalak eraman dira aurrera eta bertso txapelketa, adibidez, oso arrakastatsua izan da. Bestalde, toki batzuetara joan eta Korrikaren alde dirurik emango ez duela uste duzunak dirua ematen du.

eta ez hain beteranoak

Horrek poztu egiten zaitu. Korrikaren helburu nagusiak kilometro kopuru bat saltzea eta herriko euskaltzaleak biltzea da: kilometro guztiak salduko dira eta ekitaldietan herriko euskaltzale asko bildu dira".

Gorkari, ea "beteranoei" aholkurik eskatu nahi zien galdetu genion. "Josuri aholkua edo duela bi urteko informazioa askotan eskatu diot telefonoz, baina azkenean zuk zeuk moldatu behar duzu. Plan txiki bat egin eta horri segitu behar zaio".

Antxiñe Mendizabal, Xerapio Jauregi eta Josu Aztiria "beteranoek" Gorkarentzat aholkurik ez dute, baina bai makina bat istorio kontatzeko. Antxiñe duela 17 urte hasi zen AEKn lanean. "Lehengorik egunean kontuak ateratzen hasi nintzen eta 17 urte pasa direla konturatu nintzen. Oso gaztea naiz oraindik, nola liteke 17 urte izatea! Ni orduan ez nengibilen euskaltegian eta Patxi Iraetak eskeini zidan koordinazio lana hartzea. Hurrengo urtean jada irakasle lanetan hasi nintzen eta AEKko dinamikan sartu nintzen. Lehengorik lana kotxea edo motoa erostea izaten zen, Egiako etxeko bileretara joateko, kartelak ekartzeko... Orduetik 8 edizio antolatuko ziren". "Lehen ez zen urte batean bai eta bestean ez egiten", dio berehala Xerapiok. "Hamasei hilabetez behin egiten zen, batzuetan neguan izaten zen, besteetan igoal udaberriaren...". "Behin ez al zuen elurra egin?", gogoratzen du Josuk.

Bisastin izandako solasaldian galderak guk egingo genituela ueste genuen arren, Josuk eta Antxiñek gure lanean lagundu zigu-

ten. Izan ere, Antxiñe euskaltegiaren egungo dinamika ezagutzeko gogoz joan zen eta Josu, berriz, duela urte batzuetako istorioak entzuteko irrikaz. Grabagailua martxan jarri eta galdera-erantzunak eurek bota zituzten.

"Ni hasi nintzen urtean lehen aldiz afari herrikoia egin genuela eta frontoira jende asko joan zela gogoratzen dut. Ondorengo urteetan batzordera azaltzen zen jende kopurua bajatuz joan zen", dio Antxiñek. "Polita izango zen ikustea ea egun jende berak erosten dituen kilometroak. Nik buruan dut zeintzuk erosten zituzten", bota du ondoren. "Ez da asko aldatu" dio Xerapiok.

Saldu beharreko kilometro kopurua beti antzekoa izango denez, aurreko edizioetan erosi dutenek errepikatzea nahikoa izango da guztiak saltzeko... "Urretxu-Zumarragan lan bikoitza izaten genuen, Korrika bi aldiz pasatzen baitzen askotan. Kilometro asko saldu behar ziren" (Antxiñe).

Kilometroak saltzea lan gogorra bada, badira ere gusturago edo seriotasun

gutxiagoz egiten diren lanak. "Graziosoena kotxea eta pintura baldea hartu eta kilometroak markatzea izaten zen. Kilometro batzuk kilometro eta erdikoak izaten ziren", dio Antxiñek. "Tranpa ere egiten genuen, -oroitzen du Xerapiok - herri barruko kilometroek 700 metro izaten zuten eta Aizpurutxo aldekoek, berriz, bi". "Kotxeek pintura borratuko duten beldurrez izaten ginen eta oso bezperan joaten ginen" (Josu). "Eta gainera gauzez, *con nocturnidad y alevosía*. Urte batean Santa Lutziko surtidore ondoko paretan sekulako pintada egin genuen eta goiko baserrikoak haserre-etu egin zitzaizkigun" (Antxiñe).

Antxiñe bi aldiz izan zen herriko batzordearen koordinatzailea, Xerapio behin eta Josu beste behin. "Ondoren irakaslea izan nintzen eta irakasleok partaidetza zuzena genuenez, lana antzera egin behar izaten zen. Koordinatzailearen funtzioa informazioa ekartzea zen" (Antxiñe). Orduetik, ordea, gauzak aldatu egin dira. "Orain baino ikasle eta irakasle gehiago zegoenez, jende gehiago zegoen lan egiteko. Aukera gehiago zegoen jendea lortze-

ko. Orain, behar bada, jende kopuru bera ibiliko da batzordean; baina jende bila ibili behar duzu" (Xerapio). "Lehen batzordea eratzen zen, baina euskaltegiko irakasle eta ikasleek osatzen zuten" (Antxiñe). "Azken sei urteetan ikasleen parte hartzea gutxitu egin da eta gehiago jo da herri mailan dei zabala egitera. Azkenean jende berdina apuntatzen da Korrika batzordean, Egunkariaren aldeko batzordean..." (Josu).



Korrika Kulturalaren barne antolatu den herriko bertsolarien arteko txapelketak arrakasta itzela izan du.

Bisasti Euskaltea izan zen, hain zuzen ere, 80ko hamarkada bukaeran Egunkariaren sorrera herrian bultzatu zuena. Xerapio Egunkaria sortzeko herrian eratu zen batzordean lanean hasi zen eta, ondoren, euskaltegian lanean jarraitu zuen. "Egunkaria sortzeko lana bukatu zenean euskaltegian lan egitea eskaini zidaten eta...". Josu, berriz, txistulari taldeko kide gisa hasi zen Korrikan lanean. "Afariren batean jotzeko deitu zigutela gogoratzen dut. Gero, dirudienez, ni ere *lista negra* horretan nengoen eta herriko batzordearen koordinazioa eskaini zidaten. Ikasketekin batera egin nezakeela uste nuen eta baiezkoa eman nuen. Holako zer edo zer egiteko gogoia nuen".

Josuk, Antxiñek eta Xerapiok bezala, lan polita dela uste du. "Batzordea osatzeko deialdia egiten duzunean ez dakizu zenbat jende hurbilduko den, aurreneko bileretan jendeak ez du hitz egiten, dirua eskatu behar duzu... baina murgiltzen zarenean lan polita da. Herria eta jendea ezagutzeko lan polita da". Antxiñeren ustez, AEKn hastea gertatu zaion gauza aberasgarrietakoa izan da. "Herria ezagutzen hasten zara, beste herri batzuk ezagutzen dituzu, jendaurrean hitz egiten hasten zara, gorri-

tzen zara... Implikazioa AEKn ikasi dudana hitz nagusia da eta horren inguruan sortzen ziren liskar nagusiak".

Josuk duela urte batzuk Korrika antolatzea zailagoa izango zela uste du: "Garai batean Udalarekin harremana zailagoa izango zen". "Gure garaian tentsio motiboak bazeuden udalarekin, AEK oso gauza sektarioa bezala ikusten baitzen. Gure borroka dirulaguntzak eta errekon-

**"...elizako paretan
Villarreal irakurri eta
orain beste herri
batean sartu gara,
Villarrealen! esan zuten"**

zimentua lortzea izaten zen", dio Antxiñek. "Izan ere, Bisasti euskaltegiaren garairik onenetakoa ezagutu genuen. Jende asko etortzen zen euskara ikastera". Josuk, berehala zenbat ikasle zituzten galdetu dio Antxiñeri. "Ehundik gora izango ziren. Edadeko jendea zegoen eta euskaltegiak pisu handia zuen. Gero, beste gauza asko bezala, jaitsi egin zen".

Korrika berak, ordea, honelako festa guztiek bezala, gora egin du. "Orain Korrika Kulturala deitzen zaio Korrika pasa aurretik antolatzen diren ekitaldi sortari. Lehen afari bat antolatzea erabaki, trikitilariei deitu eta listo. Pare bat gauza antolatzen ziren" (Xerapio). "Gaur egun, antolaketa zorrotzagoa izango da... baina kartelak berdin-berdin jarri beharko dira" (Antxiñe). "Lehen kamixetak, txiskeroak eta marikonerak soilik saltzen ziren eta egun arropa mordoa saltzen da" (Xerapio).

Solasaldia nahi adina luzatu zitekeen, Antxiñe, Josu eta Xerapio gustura baitzeuden. Nolabait bukatzeko, Korrikaren antolaketan lanean eman dituzten urteetako pasadizuren bat kontatzeko eskatu genien. Xerapiok berehala erantzun zion gure eskaerari: "Behin Korrika Azkoititik zetorren eta kartela ikusi zutenean furgonetakoak megafoniatik *Urretxura heldu gara, txalo bero bat!* esan zuen. Baina handik 200 bat metrora elizako paretan Villarreal irakurri zuten eta *orain beste herri batean sartu gara, Villarrealen!* esan zuten". Bestalde, Josuk ondo dionez, urtero nahiko komeria izaten dute Urretxun edo Zumarragan dauden jakiteko. "Duela bi urte Aitor Gabilondo Urretxuko alkatea dela esan zuten".



www.megadenda.com

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx

tarjeta megadenda txartola

ZORIONAK!



Aurten berandu ibili arren, **zorionak Xabi** amaren partez! (Segura Irratiko zorion atalen antza hartu ote du gureak?).



Leire, hori da hori irrifarrea... aita exekutibo denetik gusturago ikusten zaizu! Zorionak!



Aitor, jan ta lota potolo! Lotara jatera bezain gogotsu joaten bazara, majo haziko zara! Zorionak!



Ezkundu aurretik jada muturra okertuta baldin bazaude, zer nolako aurpegia jarriko ote duzu ezkundu ondoren... Alazne, Eñaut kate motzean lotu ezazu... orain disimuloan ari den arren, parrandazale jaito dena parrandazale hiltzen baita! **Zorionak!**



Alicia, hurrengoan farre egizu argazki hau ez da goardia zibilaren kontroletan erakutsi behar eta!



Ane, ea hortzak behingoz ateratzen zaizkizun sagardotegira joan ahal izateko! Zorionak!



Antonio, burua pittin bat gehiago hazi balitzaizu argazkitik aterako zinateke! Zorionak!



Antziñe, kentzazu behingoz "Palestinoa", udaberria jada heldu da eta! Zorionak eta ondo ibili!



Arantxa, ez al duzu zuk ere argazkian besteren batekin ateratzeko gogorik? Zorionak!



Arkaitz, udaberriari alergia al diozu? Hori da hori triste aurpegia! Zorionak!



Beni, udaberriarnasteko arazoak dituztenetakoa al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Erik, hori da hori irrifarrea... hortzorea irargartzeko fitatu al zaituzte? Zorionak eta ondo ibili!



Edurne, argazkilaria txarra zen alazu mugitu al zinen berak esandako tokitik? Zorionak!



Garazi, zerk egiten dizu horrenbesteko grazi? Ez zara ba gutaz parre egiten ariko? Zorionak!



Iñaki, txintxo aurpegia jarri ez gaituk engainatuko, hire amak dena konstatzen ziguk! Zorionak!



Irati, esaiozu osaba Anesi paga emateko, zuhur hutsa da eta! Zorionak eta ondo ibili!



Itziar, argazkian dirudien bezain txintxo al zara? Ezin liteke... Zorionak eta ondo ibili!



Jesus Mari, hori da hori heavy itxura duzuna... Iron Maidenen kamiseta soilik falta zaizu! Zorionak!



Jon, dirudinez zuk ere ez diezu tutik ere sinistu Aznar, Blair eta Bush-i. Zorionak eta ondo ibili!



Jon, dirudizun bezain txintxo al zara? Badaezpada ere ez gara batere fidatuko... Zorionak!



Jorge, hori da hori posea... Jorge Fernandez izenkideak ez luke hobe egingo... Zorionak!



Juan, traktorea bakarrik falta zaizu Erriberako semea izateko! Zorionak eta ondo ibili!



Julen, entzuten eta ikusten ari zarena ulertezina egiten zaizula dirudi... ez da harriztekoa!



Maddi, zapia buruan eta ibili munduan, baina ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun!



Maialen, pitonisa Lolaren ilea-paindegi berera joaten al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Maitane, ea aurpegia pittin bat alaitzen duzun guri koska egiteko zorian zaudela dirudi eta! Zorionak!



Maria Angeles, hurrengoan esaiozu argazkilaria hobeto enfokatzeko! Zorionak!



Maria Dolores, zure aurpegia ikusita ez dirudi "dolore" handirik duzunik! Zorionak eta ondo ibili!



Maria Eugenia, kentzazu berokia soinetik, jada udaberriarn sartu gara eta! Zorionak!



Mila, oraingoan ere mingaina astintzen harrapatu zaitugula dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



Mireia, hori da hori zoriontasun aurpegia... zuri ere Bushek petrolioa eman behar dizula agindu al dizu? Zorionak!



Nagore, hori da hori "posea"... argazkilaria zurekin lan egiteko irrikitan izango dira!



Naiara, hori da hori "pikaro" aurpegia duzuna... Zer nolako bihurrikeria prestatzen ari zara?



Naroa, hori da hori makarra itxural! Ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun! Zorionak!



Aintzane eta konpainiak harrobia zuk bezain ondo zainduko balute... **Zorionak Nekane!**



Pablo, hori da hori "karakolilloa" duzuna... Marujita Diaz-en jarraitzailea al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Paulo, ez genekien Mario Conderen sendia gure herrira bizitzera etorri zenik... Zorionak!



Rosa Mari, atzo galdu genuen 500 eurokoa ikusi al duzu lurrean? Zorionak eta ondo ibili!



Sergio, alaitu ezazu aurpegia pittin bat motel aurki Aste Santuko oporrak iritsiko dira eta! Zorionak!



Unai, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... zer demontretan zabilta oraingo honetan? Zorionak!



Mari Jose, ez zaude ile faltan! Akaso hemendik gutxira guri pixka bat utzi beharko diguzu...



Mirian, zer demontre atera zaizu buruan? Shin Chan dirudizu. Zure amak ere koskorrekoak jotzen al ditu?



Mikel, ordutik hona morrosko ederra egin zara, baina orrazkera berdinarekin jarraitzen duzu! Zorionak!



Rafa, toki bat libre genian eta hi aukuratu haugu betelana egiteko, baina ez hadi bazterrak nahasten hasi!

Galipota garbitzen



Hilaren 7ko asteburuan Urola Garaitik Galizara galipota garbitzera joan den lehen bolondres talde handia atera zen Legazpitik. Legazpiarrak, tartean Iñaki Mendaraz urretxuarra zela, larunbat goizean heldu ziren. Carme herrira eta bi egun eman zituzten arroketa itsatsita dagoen galipota garbitzen. Iñaki Mendaraz urretxuarrarekin eta Mikel Zubizarreta, "Txamar" San Martin, Monika Monteagudo eta Alberto Bezunartua legazpiarrekin hitz egiten izan gara bidaiaren antolaketaz, Galizian ikusi dutenaz eta bertan egindako lanaz.

Mikel Zubizarretak eta bere lagunek Galiziar galipota garbitzera joateko asmoa zuten. Legazpiar gehiago joateko prest zeudela ikusirik, Udaletxera jo zuten. Bertan jende asko Galizara joateko prest agertzen bazen autobusa ordainduko zieten esan zieten. Legazpiarrek autobusa betetzeko adina jende zegoela ikusi zuten eta galiziarrekin harremanetan jarri ziren. Bolondresentzako jarrita dagoen telefonora deitu zuten eta bertan martxora arte dena beteta zegoela esaten zieten. Baina beste bost telefono eman zizkieten, haietan jendea behar zutela esanez. "Kofradi txiki-txiki telefonoak eman zizkiguten, haue-tan jende asko zegoela eta seguraski luzatu egingo zela esan ziguten. Orduan, Galizian lagunak dituen Monika agertu zen".

Monikaren gurasoak galiziarrek dira eta bertan lagun asko ditu. "A Coruña-ko nire lagunek galipota garbitzen lan handia egin dute eta Nunca Maisekoak diren Cormeko batzuekin harreman onak dituzte. Legazpitik hara joan nahi genuela esan zieten eta Cormera joateko aukera eskaini ziguten bai beraiei eta baita

guri ere. Gestio guztiak Cormeko kofradiakoek egin zituzten: segurua egin ziguten, lanabesak lortu zituzten, janaria eta ohea eman ziguten...".

Corme A Coruña ekialdean dago. Legazpiarrak ostiral iluntzean abiatu ziren haruntz eta larunbat goizean heldu ziren. Galiziarrek gosari indarberritzailea eskaini zieten eta, berehala, lanean hasi ziren. Mikelek espero baino galipote gehiago aurkitu zuen. "Hondartzak garbi daude, baina kostaldea oso luzea da eta itsaslabarra beltza dago". Monikak dioenez, "komunikabideek esandakoa soilik dakitenek hura garbi dagoela uste dute, baina ni abenduan izan nintzen eta banekien hura garbitzeko urteak beharko direla. Aurten ez naiz hondartzara joango...". Iñaki Mendarazek, berriz, ez zuen komunikabideek esaten dutena sinesten. "Nik bakarrik hiru kamioi beteko nituela uste nuen eta espero baino galipote gutxiago ikusi nuen". Dena den, Alberto Bezunartuak ondo dioenez, nahi baino galipot gehiago dago oraindik. "Gu bi sartune garbitzen ibili gara, baina Cormeko gazte batek esan zigunez, oraindik ikutu gabeko 12 sartune

daude Cormen bertan. Jende asko ahaztu egin da jada gaiaz, baina zikinkeria ugari dago oraindik".

Zikinkeria hau guztia garbitzea ez da batere erraza, are gehiago arroketa itsatsita edo arroketa zirrikituetan sartuta badago. "Espatula txikiak erabiltzen genituen. Arkeologiaren antzeko lana zen, oso aspergarria. Bakoitzak harkaitz bat hartzen genuen, zer edo zer garbitu genuela uste eta eguzkiak ematen zionean beltzago zegoela zirudien. Bigarren egunean galipote gehiago atera genuen, eguzkiak bigundu egin baitzuen eta errazagoa baitzen kentzea".

Itsasbehera zenean soilik lan egin zezaketenez, Corme ezagutzeko astia ere izan zuten. Dena den, ez zuten herritarrekin hitz egiteko aukera handirik izan. "Oso herri txikia da, 900 biztanle besterik ez ditu, eta oso gazte gutxi ikusten zen". Iñaki Mendiarezek dioenez, "asteburu hartan Kursaaletan Cormeko kofradiaren aldeko jaialdia egin zen, hori dela eta, bertako asko Donostian zeuden".

Cormetar batek esan zenez bolondresekin askoz ere gusturago daude galipota garbitzen ari diren militarrekin baino. Izan ere, hauek istiluak sortzen baitituzte. "Bolondresak herritarrekin harremanak izaten saiatzen gara eta animoak ematen dizkiegu. Animo beharrean daude eta gure laguntza asko eskertzen dute. Ez genuen asko hitz egin beraiekin agintariekin emanda-

ko erantzunaz, baina beraiekin ez daudela gustura nabari zaie. Corme bolondresekin lan egiten ari den herri bakanetakoa da eta beharbada hemendik gutxira ez diete bolondresekin lan egiten utziko. Agintariei dena garbi dagoen irudia zabaltzea komeni zaie, bolondresak behar direla aitortzen bada ezin da irudi hori zabaltzea. Bestalde, irudi hori zabaltzeko hondartzak garbitzearekin

“Jende asko ahaztu egin da gaiaz, baina zikinkeria ugari dago oraindik”

nahikoa zaie, baina Cormekoek arrokak garbitzea ere nahi dute".

Legazpitik Galiziarra joan zirenak gustura ibili ziren lanean eta ez litzaie inportako bueltatzea. Oraingoz, dena den, Galizian ateratako argazkiekin erakusketa egiteko asmoa dute. Argazki hauek guztiak Legazpiko tabernetan izango dira ikusgai hemendik aste batzuetara. "Batzuek han jada lanik ez dagoela uste dutenez, argazki erakusketa oso ondo egongo da Galizian oraindik lan handia dagoela egiteko ikus dezaten".



MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292



BAPRI
ANIMALIADENDA


Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA





Iñaki Mendaraz

Urretxu eta Zumarragan oso gutxi izango dira Iñaki eta Aitor Mendarazaren txalaparta-
ren soinuaz sekula gozatu ez dutenak. Iñaki, bietan zaharrena, Ikastolan ikasketak hasi
zituen lehen belaunaldikoa da. Ikastola ireki berriak ez zuen, noski, egungo eskaintza
eta La Sallera joan zen ikasketak bukatzera. Bertan O.H.O. eta FP2 elektronika egin
zituen eta, ondoren, EMAn (egun U-Z dena) lanean hasi zen. Aitarekin eta anaiarekin
poliesterra egiten eta AMPOn aritu ondoren, egun Construcciones Metálicas Urretxun
lan egiten du.

Duela hiru hamarkada Legazpiko Untzilla ikusi zuen txalaparta jotzen San Juanetan,
“nik ere ikasi behar dut” esan zion bere buruari eta berarengana joan zen Migel Iraeta “Poxpolo”-rekin. “Legazpiko
eliza azpian dauden aretoetan ikasten genuen. Areto berean Legazpiko Dioni kitarra jotzen eta Hertzainak tal-
deko baterajolea izan zen “Txanpi” bateria jotzen aritzen ziren”.

Jendaurreko lehen saioa San Juanetan eskaini zuten. Geroztik, Iñaki Euskal Herriko eta atzerriko makina bat pla-
zatan aritu da; aspaldiko urteetan bere anaia Aitorrekin batera. “Behin, Zelai-Aritziko kioskoan jotzen ari ginela,
garai hartan autore eskubideak kobratzen aritzen zen Bert etorri zitzaigun autore eskubideak kobratzera”.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Heldua.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendian ibiltzea, lagunekin egotea, potrojorran egotea...

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu eta Zumarraga ondo daudela iruditzen zait, beharbada ohituta gaudelako.

-Txalaparta jotzeko gustuko plaza?

San Juan gaua hunkigarria da. Gainera, San Juan gau batean hasi ginen duela 27 urte.

-Norekin gustatuko litzaizuke txalaparta jotzea?

Joxean Artzerekin jotzea gustatuko litzaidake. Gu hasi ginenean Artze anaiak eta Zuaznabartarrak ziren ia jo-
tzen zuten bakarrik.

-Gustuko musikaria?

Silvio Rodriguez.

-Nori joko zenioke makilkada gustura asko?

Espainiako gobernuari.

-Gustuko mendia?

Irimo eta zazpi puntak oso politak dira. Kostaldea, Barrendiolako buelta, Belokikoa... ere asko gustatzen zaizkit.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Ez dago jakiterik nor den ileheria eta nor beltzarana... berdin zait.

-Egindako azken oparia?

Arropa.

-Eta jasotakoa?

Praka batzuk.

-Data bat?

Urtarrilak 28. Erlantz jaio zeneko eguna, lehena izatea-

gatik.

-Neska eta mutil izen bana?

Mutilenak Erlantz eta Unai. Neska izenen artean Itsaso asko gustatzen zait.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Denei errepasua ematen diet. Beno, La Razoni ez.

-Gustuko telebista saioa?

Erreportajeak eta dokumentalak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Saio asko ikusten ez dudanez, ezin diet gorrotoa hartu. Dena den, jendea telebistara bere bizitza kontatzera joa-
tea patetikoa iruditzen zait.

-Liburu bat?

Ez dut asko irakurtzen. Orain Lance Armstrongen “Mi vuelta a la vida” ari naiz irakurtzen.

-Filme bat?

Roberto Benigniren “La vida es bella” oso polita da.

-Gustuko abestia?

Silvioren abesti asko gustatzen zaizkit, bat aukeratzeko-
tan “Unicornio”. Txomin Artolaren “Txuriko” ere asko atse-
gin dut.

-Soinu bat?

Isiltasuna ere oso polita da: mendian eseri eta entzuten dena. Itsasoko olatuak entzutea ere gustuko dut, sarritan joaten naiz kostaldera.

-Usain bat?

Belar moztu berriarena. Baita kafearena ere.

-Janari bat?

Amaren makailoa.

-Ura ala...

Ardoa, txakolina... ura ere bai, e!



Jose Mari Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu
Telefona: 943 72 14 13
Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa:
jmiparragirre@edunet.es



Erdi mailako heziketa zikloa **Erizain laguntzailea**


Osasun familia, A-D ereduetan

Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

Oharra: Ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da.



Egin zaitez Otamotzeko harpidedun!

Azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldirakirako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldirakaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2003. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizkigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

-6 euro

-9 euro

-12 euro

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria:

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRETXU